

ANIMALIEN BABESARI BURUZKO III. EUSKAL JARDUNALDIAK

BILBAO

2010eko abenduaren 20 / 21 / 22

19:30ean

Bidebarrieta Liburutegia (Bidebarrieta, 4)



Argazkia: Luis Presa

Babeslea

Antolatzailea

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUEN, LURRIEN
ETXERAKO, KULTURAREN
ETA ARTEAREN SAIA
DEPARTAMENTUEN DE NEKEO JAUREN,
KULTURAREN, KULTURAREN,
KULTURAREN, KULTURAREN



Hemen dira Animalien Babesari buruzko III. Euskal Jardunaldiak, noiz eta pertsonok gainerako animaliei eman behar diegun tratuari buruzko eztabaida gori-gori dagoenean. Kataluniako Parlamentuak hartutako erabakia abiapuntua izaki, zirkuak, ehiza edo elikagaitarako abere-hazkuntza intentsiboa bezalako gaiak jendaurrera azaldu dira, indarra hartu dute, eta badirudi eztabaida, gutxitu beharrean, hazten joango dela datozen urteetan. Zentzu horretan, ekimen honek bide zoragarri horretan bere papera betetzea lortu nahi da.

Logikoa den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan egoera hori ez da arrotza, eta, izatez, EAEko zenbait herri-erakunde –Jaurilaritza eta Legebiltzarra– merezi duen seriotasunaz arduratu dira azaleratzen ari den errealitate horretaz, eta urratsak emateko eta gaiaz eztabaidatzeko prest daude.

Astelehena, abenduak 20

KIROL EHIZA [ETA ARRANTZA] (eztabaida)

Florencio Markina

Leongo Unibertsitatean Biologia Zientzietan doktore egina. *Arabako Ehiza Esparruen Elkarteko* teknikaria eta *Orkatzaren Espainiako Elkarteko* presidenteordea. Duela hogeitau urte baino gehiagotik, orkatzaren eta basurdearen ehiza kudeatzeko planen arduraduna Arabako Lurralde Historikoan. Bizi-iturriak kudeatzen espezialista da, eta hainbat ikerketa-egitasmo garatu ditu, ehizak ehizakiengan duen eraginaren gainean.

Luis Presa

Animalien eskubideen aldeko ekintzailea da duela hamar urte baino gehiagotik, eta egun *ATEA (Animaliekiko Tratu Etikoaren Aldeko) Elkarteko* kidea da; erakunde hori Euskal Herrian animalisten mugimenduan aitzindari izan zelarik. Animalien aldeko ekimen ugaritan esku hartu du hainbat kolektibotan, eta «animalien gaia» izenekoaren gaineko zenbait eztabaida-forotan hartu du parte.

HIRIKO KATUEN KOMUNITATEAK: KONPON DAITEKEEN GATAZKA

Pepe Fernández Basterra

Medikuntzan eta Osasunean espezialista den albaitaria. Klinika pribatu batean bost urtez lan egin ondoren (txakurrak eta katuak), 1998an, Gasteizko Udalaren *OKUS (Osasun eta Kontsumo Sailean)* hasi zen, eta besteak beste Armentiak *Animaliak Babesteko Zentroko* arduraduna da. Profesional gisa, hiriko katuak humanitatez kudeatzeko esperientzia aitzindari bat hurbiletik jarraitu du.

Agnès Dufau

«Prestakuntzaz ekonomista eta zaletasunez katuazaina» dela aitortzen du. Libre duen denboran kaleko katuak babesten ditu. Cervellóko Babeslekuan laguntzen du boluntario gisa, eta *Katuzainen Plataformaren* idazkaria da. Bartzelonako katu-koloniak kudeatzeko eredia finkatzera bideratuta dago bere lana, lan egiteko ikuspegi humanitario hori beste toki batzuetara esportatzeko, eta horrela jendarteak katuen mundua gehiago ezagutu dezan eta horrela katuak etxe-abere gisa duen estatusa hobetu ahal izateko.



ANIMALIAK BABESTEAREN ARLOKO LEGERIA

Daniel Dorado

Animaliei eragiten dien legerian espezialista den abokatua. Animalien eskubideen praktika juridikoan aitzindaria Estatuan. *Animaliak Babesteko Lege Zentroko* presidentea. Abokatuak eratutako irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta helburua *espezismorik* gabeko jendarte baterantz jotzea da. Egun, doktore-tesia prestatzen ari da: animalien gaineko iritzi moralaz argitaratutako lanen bibliografia oharduna.

José Luis Anda

Zuzenbidean lizentziaduna. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako zuzendari nagusia eta Gasteizko Ganberako legebiltzarkidea izan da. Egun, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordea da. Burua da *Kalitatea Fundazioan eta Itsasmendikoi* Euskal Autonomia Erkidegoko landako eta itsasertzeko heziketa, sustapen eta garapenerako zentro integralean. Animaliak babesteko EAEko Legea berritzea sustatu du.

*Hau da animalismoaren manamendua:
animaliekin ezer egin edo ez egin aurretik,
galdegin ezazu onartuko zenukeen
pertsonekin, zeu barne zarela.*

Norbert Bilbeny
Etikan katedraduna

